

Donostian, bildu dira: Ignacio Maria Etxaide, buru, Dassance, Mitxelena, Gorostiaga, Lafitte, Irigarai, eta Oleaga euskaltzaiñak. San Martin, Arruza, Aita Larrañaga apezpiku jauna, Alvarez Emparanza, Etxaniz, eta Irigoyen urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko batzar-agiria ontzat artu da.

Euskaltzaindiak Aita Santuari bialduriko biblia euskeratua dala-ta, Oleaga jaunak diño Bilboko apezpiku jaunak bialdu dautsala Mr. Tardini-k berari zuzendu dautsan eskutitzaren kopia. Bertan diñotso Aita Santuak pozik eta eskertsu artu dauela biblia ori eta berau egiten eta argitaratzen ibili direan guztieri bere goi-onespena bialtzen dautsela. Aitatutako eskutitz-kopia ori izenpetu barik datorren ezkeroko egoki litzake uts au bete daiten eskatzea. Begi olan Oleaga-k.

Espasa Calpe, S. A.-ren idazki bat irakurri da. Diño bertan *Euskalerraren Yakintza* liburuari jagokozan egille-eskubideen garbikuntzeak Euskaltzaindiarentzat itxi dituala 238,85 peseta. Baita lenengo tomoa barriro ta bigarrenez argitaratu dabela 2.822 ijeki egiñik, eta liburu barri onein irabazien barri urrengo garbikuntzean emongo dabela bere badiño. Mitxelena jaunak diño olango garbikuntzetan zergatarako kentzen dan eunekoa neurritik gora ete dagoan begiratutea egoki litzekeala.

Gorostiaga jaunak diño egoki izango litzakeala batzarren aurretik eguneko eginkizuna deiagaz batera bialtzea. Orretarako bear litzake euskaltzaiñak Bilbora bialdu daien eguneko eginkizun orretan sartu gura dabena. Gorostiaga-k diño, gaiñera, urteko izkuntza-gai batzuk autatu bear litzakezala erabagiteko, batez be literatura-oiitureari argitasuna emongo dautsienak. Irigoyen-ek diño ori gauza egokia izango litzakeala, batez be, Arantzazu-n, Bilbo-n eta Eibar-en egin zirean moduko batzarrak egiten jarraituten bada, alangoetarako gaia aurrez autatua izango litzakealako. Oleaga-k diño izan be euskaltzaiñen zeregiña orixe dala. Eta Mitxelena-k astiz arakatu bear lirakeala gaiak.

Irigoyen-ek Euskaltzaindiko diru-bearrizaran gaiñean lantxo bat irakurri dau. Bertan diño, beste gauza batzuen artean, zelan erabagi leitekean aurtengo bertsolarien txapelketetarako diru kontua Nafarroan, Gipuzkoan, Bizkaian eta Euskalerrri osoko txapelketa nagusia egiteko. Diño, gaiñera, igaz legez aurtan be euskal-kanta batzuk argitaratu leitekezala Euskalerrri osoan zabalduko eta orretarako Aita Antonio Zabala-k bialdu dautsazala bertso zaarren batzuk euskaldunen aotan geien dabiltzanak eta ibili direanak. Igaz amazortzi milla ale egin zireala eta areitatik milla bat edo gelditzen direala. Ontzat artu da gutzia.

Gero Astiz jaunak gertau dauen eskabidea irakurri da. Euskalerrri osora zuzendua dago. Oleaga-k diño au len gertau zana baiño egokiago dagoela eta ontzat artu

leitekeala bestearen ordez. Eta Euskaltzaindiak ontzat artzen dau mamiz. Azaleko zuzenketa txiki batzuk egin bearko dira. Mitxelena jaunaren eskuetan itxiten da berak egin daizan eta baita Gipuzkoako euskaraz jarri daian. Gero bialdu begi Bilbora Oleaga jaunak Bizkaiko euskeraz imini daian eta baita Lafitte-ri be ango euskaraz eta frantsesez jarri daien. Irigaray jaunak diño euskerazko itzulpenak erderazkoak diñoana zeatz eta meatz azaldu bear dauela, eta Mitxelena-k Bizkaiko itzulpenak eta Gipuzkoakoak bateratsu joan bear dabela eta ezer aldatzen bada Bizkaikoan zerbaitegaitik Gipuzkoakoan be aldatu bear litzakeala.

Beste barik oi dan atoitzagaz amaitu da batzarra.